

a u z o z a u z o

altza

Plan Orokorraren azalpena


donostiako Hiria Antolatzeke Plan Orokorra esplikatzera etorri ziren lehengo astelehenean Odon Elorza, Donostiako Alkatea, Mikel Iriondo, Donostiako Udaleko Abokatua eta Santi Peñalba Plan Orokorreko Bulegoko Arkitektoa.

Azalpen honen helburua Altza inguruan datozen urteetan egingo diren ekintza guztiak bertako biztanleei argitzea zen, eraikuntzak, zerbitzuak, azpiegiturak...

Baina Plan Orokorreko honak ulertarazteko daukan zailtasunak eta jende-

ak jaso duen informazio urriak hitzaldia arazo bakar eta garrantzitsu batean zentratu zuten: Garbera eta Eroski. Hitzaldi honetan argi eta garbi agertu zen, altzatar gehienei, kezka handia sorrarazten diela Eroskiren eraikuntzak.

Hipermerkatuaren eraiketak, alde batetik, inguruko denda txikien desagerpena ekar lezake eta ondorioz, langabezia, eta bestetik, Eroskiraino iristeko bide berriak egin beharko lirateke eta inguruko baserriarren lurrak, bide zidorrak, e.a. desagertu.



Arria parkea. Altzan datozen urteetan egingo diren aldaketek hainbat azalpen eman zituzten Udal ordezkariak. Auzoaren itxura hobetzen saiatuko direla adierazi zuten.

Hitzaldia giro onean korrarekiko kezkek bertan egin zen eta informazioa zeuden beste altzatarrei duten pertsonak Plan Orokorreko erakusten saiatu ziren.

Ruiz del Campok 25 urte


ruiz del Campo ikastetxeak aurten 25 urte bete ditu. Hau dela eta ekintza egitarau zabala prestatu dute.

Egitaraua, maiatzaren 22an hasi eta ekainaren 19ra bitartean luzatuko da. Besteak beste honako hauek antolatu dituzte: maiatzaren 23an Casares Kultur Etxean argazki erakusketa izango da, maiatzaren 25ean Zaragozako Atrakzio Parkera joango dira, 27an Itxaropena O-

txotearen kontzertua eskeinitiko da Casares Kultur Etxean arratsaldeko 7etan eta ekainaren 19an egun-pasa egingo dute Errioxan ikasle izandako guztiak.

Altza artean handiegia ez zenean sortu zen ikastetxe hau. 1969an hasi zen hurrekin lanean. Garai hartan Ruiz del Campo ikastetxeak matrikulazioaren dirua langileen baliabideetara egokitu zuen.

LARRAITZ GARMENDIA (Tfno.:391267)



Roxali

Ruiz del Campo ikastetxea etxe honen behaldez kokatzen da.

HIPER LARRATXO

Opariak - Barruko Arropa -
Tresneriak - Jostailuak - Bisuteria

Bertsolari Txirrita 10 ☎ 40 05 95 DONOSTIA

ELEKTRO BAZAR

Elektrizitatea, elektratresnak, sukalderako tresneria

Serapio Mugika 8, Bidebieta ☎ 40 10 60